Design and Development of Polymer Optical Fiber Based Platforms for Glucose Detection

by

Mikel Azkune Ulla

A dissertation submitted to the School of Engineering of Bilbao in Partial fulfilment of the requirements for the degree of PhD in Engineering

Bilbo, March 2019

Polimerozko zuntz optikoetan oinarritutako plataformen diseinu eta garapena glukosa detektatzeko

Mikel Azkune Ullak egindako tesiaren txostena,
Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU)
Ingeniaritzan Doktore titulua
eskuratzeko aurkeztua.

Bilbo, 2019ko martxoa

“…ezaren gudaz baietza sortuz,
ukazioa legetzat hartuz beti aurrera joatea…”
Izarren hautsa
Xabier Lete

Acknowledgments / Eskerrak

Lerro xume hauen bitartez, liburu honetan laburbiltzen den lan guztia aurrera eraman ahal izateko beharrezkoak izan diren pertsonei merezitako aitorpena egin nahiko nieke. Horien artean, nola ez, familia aurkitzen da, hitz-sorta honetan agertzen dena beraien harrotasun arrazoi izatea espero dudalarik. Lagunak ere, beti eskura egoteagatik eta pena zein poz guztiak pairatzeko prest izateagatik eskerretan agertzea ere merezi dute, noski. Hirugarren helduleku nagusi izanik, azken lau urte eta erdietan ezagutu eta laguntzeko prestutasuna aurkeztu duten ikerlari guztiak eskertu nahiko nituzke. Bilbon, Leioan zein Jenan laguntzeko prest dagoen jende eskuzabala besterik ez baitut topatu. Hainbeste izanik tesi honetan eskua sartu duten kideak, banan-bana izendatzea ezinezkoa litzatekela; horregatik, tesi hau zueri esker, zuentzat.

Bestetik, tesi-lan hau egitea ahalbidetu duten hainbat ikerkuntza talde zein erakunde eskertu nahiko nituzke. Lehenik eta behin, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Fotonika Aplikatuaren Taldea bere osotasunean. Esker horiek, gainera, Bilboko Ingeniaritza eskolako Komunikazion Ingeniaritza sailari zabaldu behar zaizkio. Horietaz gainera, Zientzia eta Teknologia fakultateko Kimika Fisikoa saileko Labquimac taldeari ere esker bero bat zor diot, tesiaren momentu zailenetako batean nire ikerkuntza bideratzeagatik.

Leibnizko IPHT zentroari eta Jürgen Popp zuzendariari eskerrik beroenak luzatu nahiko nizkieke, mundu mailan punta-puntako ikerkuntza egiten diharduten zentru eder honetan hiru hilabetez onartzeagatik.

Gainera, tesia aurrera eraman ahal izateko finantziazioa eskaini didan Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetza derrigor eskertu behar dut, bekarik gabe ezinezko bailitzateke lau urteko lan hau.

Azkenik, eta modu berezian, Gotzon Aldabaldetreku Etxeberria eta Iñaki Bikandi Irazabal zuzendariek ere zor duten esker ona eta onarpena lerro hauetan idatzia egotea gustatuko litzaidake, bidean izandako zailtasun guztiak batera iragan ditugulako.

Index / Aurkibidea

Index of figures / Irudien aurkibidea

Index of tables / Taulen aurkibidea

Chapter 1/1. Kapitulua

Introduction

Sarrera

Abstract—In the first chapter, we make the introduction to the context in which this work is placed, together with the settlement of the main goals. In first place, biosensors and their historical evolution until the current state-of-art are described. Furthermore, optical fiber's basics, focusing on polymeric ones, are explained. The section is completed with the description of microstructured polymer optical fibers. After that, the experimental techniques used along this work are described, and finally, the main goals for this thesis are defined.

Laburpena—Lehenengo kapitulu honetan, tesia kokatzen den testuinguruaren sarrera egiten da, eta lan honen helburu nagusiak ezartzen dira. Lehenik eta behin, biosentsoreak zer diren eta heuren garapen historikoa azaltzen da, gaur egungo egoera azalduz. Bestetik, zuntz optikoek eta, bereziki, polimeroz eginikoek dituzten ezaugarriak sakonki azaltzen dira, polimerozko zuntz optiko mikroegituratuekin amaituz. Ondoren, tesian zehar erabili diren neurketa teknikak azaltzen dira, eta azkenik, tesi-lan honen helburu ezberdinak finkatzen dira.

Duela 50 urte inguru, telefono deiak kobrezko kable bikoitz kiribildu batetik transmititzeak zekartzan arazoez jabetuz, *Standard Telecommunication Laboratories*-eko (STL, Harlow Essex, Erresuma Batua) ikertzaileek teknologia alternatibo batean pentsatu zuten. Honela, *Charles Kao*-k eta *George Hockham*-ek argia beirazko geruza meheen bitartez transmititzeko lehen pausuak gauzatu zituzten. Bi ikerlari hauek, telekomunikazio sistema bat erakargarri izatera heltzeko, atenuazio-maila 20 dB/km-ko balio maximoan finkatu zuten. Garai horretan beira arina erabiliz 100 dB/km-ko atenuazioa lortzen zuten ikerlariek. Ordutik, beirazko zuntzen teknologia modu geldiezinean garatu da gaur egungo komunikazio gehienak beirazko zuntz optikoen bitartez izatera iritsi arte.

Bestalde, 60ko hamarkadan polimerozko zuntz optikoak (PZO) garatzen hasi ziren hainbat ikertzaile, beti ere argiztapen asmoetarako. Izan ere, polimeroen atenuazio

altua eta eskaera falta zirela medio, PZOen datu-transmisioetarako erabilera arakatu gabeko aukera izan zen. Lehen PZO komertzialek 650 nm-tan 500 dB/km-ko atenuazioa zuten, baina hau modu esanguratsuan hobetu zen maila-indizedun PZOak (MI-PZO) erabiltzetik indize-gradualeko PZOak (IG-PZO) erabiltzera pasa zirenean. Mota honetako PZOak *Koike* eta besteek aurkeztu zuten polimero amorfo perfluorinatuak (PF) erabiliz [1]–[3]. Aurkikuntza honek komunitate zientifikoren arreta PZOei bideratzea erakarri zuen; eta ordutik, mundu osoko ikerkuntza talde sendoak dabiltza lanean.

Hala ere, zuntz optikoen eta PZOen teknologia datu-komunikazioetarako erabiltzeaz gain, sentsore gisara erabiltzeak etorkizun handia du, eta gai honetan oinarrituko da tesi-lan honen ikerkuntza osoa. Dokumentu guztian zehar ikusiko den moduan, optika eta PZOen eremuak oso interesgarriak dira sentsore gisa erabiltzerako orduan, hainbat lan izanik horren erakusgarri [4]. Beirazko zein polimerozko zuntz optikoak hainbat fenomeno neurtzeko erabiltzen dira gaur egun, egituren osasun monitorizazioa egiteko edo tenperatura altuak ingurumen arrotzetan neurtzeko, besteak beste [5].

Gure kasuan PZOak erabiliz, glukosaren detekzio eta zenbatzean aritu gara biosentsoreen testuinguruan. Hori ahalbidetzeko, PZOetan oinarritzen diren hainbat detekzio eredu jorratu dira. Gizarteak duen eskaera handia dela eta, glukosa neurtzeko sentsoreek garrantzi handia dute. Azken urteotan diabetesa pairatzen duten gaixoen kopurua handitu egin da, *Osasunerako Mundu Erakundeak* (OME [6]) gaixoen kopurua 400 milioitan zenbatzen duelarik. Gainera, diabetesa lehen heriotza goiztiarren kausa izatera iritsi da eta zazpigarrena heriotza orokorrak kontuan izanik. Heriotzaz gain, itsutasuna, bihotzeko erasoak eta giltzurrunean kalte handiak sortzen ditu gaixotasun honek. Gaur egungo bizi estiloarengatik zenbaki hau igo egingo dela espero da; biztanleria helduaren herenak gehiegizko pisua eta hamarrenak obesitatea baitute.

Honenbestez, tesi-lan honetan glukosa helburu-molekula gisa hartuz, hau detektatzeko PZOetan oinarritzen diren bi detekzio plataforma aurkezten dira. Horren aurretik, ordea, eta testuinguru zabal bat aurkezteko asmoz, biosentsoreen zein PZOen historia eta denboran zehar izaneko bilakaerak azalduko dira. Ondoren, tesian zehar jorratu diren neurketa ereduak aztertuko dira, detekzio plataformek izan beharreko ezaugarriak definituz. Azkenik, tesi honetako helburuak finkatuko dira.

1.1 Biosentsoreak

International Union of Pure And Applied Chemistry (IUPAC) erakundearen arabera [7], biosentsore bat ondorengoan datza: seinale elektriko, termiko edo optiko bati, eta erreakzio biokimiko espezifiko bati esker, osagai kimikoak detektatzen dituen gailua, entzima isolatu, inmunosistema, ehun, organulu edo zelula oso batek bitartekari gisa jokatuz. Honenbestez, oinarrizko biosentsore batek honako hiru osagaiak izango ditu [8]:

- Lehenik eta behin, hautakortasuna aurkeztuko duen osagai bat izango du, helburu-molekula besteengandik banatuko duena. Normalean, gertaera honek lotura kimikoen osaketa sortuko du, eta hori dela eta, elementu biokimiko gisa ezagutzen da.
- Bigarrenez, transduktore bat ere agertuko da. Transduktoreak lotura kimiko horren sorrera seinale neurgarri batean bilakatu beharko du. Adibidez, errefrakzio-indizea (EI) edo eroankortasun elektrikoa aldatuko du.
- Azkenik, seinale aldaketa neurtuko duen metodo bat behar da. Honek aurreko puntuan esandako transduktorearen seinale aldaketa neurtuko du.

Hala ere, definizio eta ezaugarri zehatz hauek urte askotako garapenaren eta hainbat ikerkuntza eremuren baturaren ondorio izan direnez, definizio honen adostasuna lortzea ez da gauza erraza izan. Horregatik, ondorengo atalean biosentsoreen bilakaera historikoa azalduko da.

1.1.1 Biosentsoreen bilakaera historikoa

Azken 50 urteetako literatura aztertzen bada, *biosentsore* kontzeptua erakargarri edo itxaropentsu gisako ideiekin hertsiki lotuta egon dela ikusten da [9]. Hala ere, ikerkuntza eremu honetan zenbait jatorri ezberdinetako ikertzaileak aurki daitezke eta honek biosentsoreen definizioa hainbat ikuspuntu ezberdin kontuan izatera behartu du. Hala ere, argi dago biosentsore kontzeptuaren esanahia asko aldatu dela jatorrian eman zitzaionetik.

Orain dela 50 urte, biosentsore bat lagin biologikoetan aurkitzen zen osagai kimiko baten kontzentrazioari erantzuten zion gailu autonomoa zen. Definizio honi helduz, lagin biologiko batean darabilkigun eta fenomeno fisiko (termometroa) edo kimiko (ehun

biologikoetan inplantaturiko mikroelektrodoa) bat neurtzen duen edozein sentsore har daiteke biosentsore moduan. Gaur egungo ikuspuntutik, aitzitik, definizio hau ez da zuzena, besteak beste, transduktore zein hautakortsaunari buruzko aipurik ez baita egiten.

Gaur egun ezagutzen diren biosentsoreen aurrekaria 1956. urtean *Lelan C. Clark*-ek aurkezturiko *oxigeno zundan* datza. Honekin batera, sentsore elektrokimikoak adimendunago nola egin aurkeztu zuen 1962an New York-eko Zientzia Akademian eginiko konferentzia batean [10]. Horretarako, entzima transduktoreak sandwich-gisako geruzetan gehitzen zituen. Honenbestez, lehen biosentsore adibidea glukosa oxidasa atxikitzen zuen dialisi-mintz batetan oinarritu zen eta 1.1 irudian ikus daiteke aurkeztu zuen mota honetako lehen biosentsorearen eskema. Esan beharra dago gailu hau entzima elektrodo gisa argitaratu zuela [11]. Biosentsore honetan glukosa kontzentrazioa igotzean, oxigeno kontzentrazioa jaisten zen modu proportzionalean, eta azken hau neurtuz glukosa zenbatzen zen. 70. hamarkada aurretik, oinarri beretsua zuten hainbat argitalpen ere egin ziren [12], [13]. Hamarkada horretatik aurrera hasi zen biosentsoreen inguruan ikerkuntza sakonagoak egiten komunitate zientifikoa, beti ere entzimaren bat sentsore elektrokimiko bati gehituz. Gaur egun, hau kontsideratzen da biosentsoreen hasiera, sentsore elektrokimikoak eta osagai biologikoak batzen dituen eremua.



1.1 Irudia. *Lelan C. Clark*-ek aurkezturiko oxigeno zundaren eskema [11].

Aipaturiko mugarriek komunitate zientifikoaren interesa handiagotu eta ikerkuntza sendoen hasiera eragin zuten. Hasiera batean, biosentsore berriak elementu biologikoa eta transduktorea eraldatuz lortu ziren. Lehenik, gailu potentziometriko edo

anperemetrikoetan atxikitu ziren entzimak, organululak, bakteriak edo ehun biologikoak; horretarako entzima espezifikoak erabiliz. Ondoren, ikerkuntza korrontea gailu optiko, termometriko edo piezoelektrikoetara aldatu zen; azken berrikuntza gailu magnetikoena izanik. Entzimak eta hauetan oinarriturik dauden elementu biologiko guztiak osagaitzat dituzten biosentsoreak elementu katalitiko gisa ezagutzen dira. Hauetatik at, beste biosentsore klase ezagunena kidetasun elementuek osatzen dute eta antigorputz, lektina, azido-nukleiko (ADN zein RNA), eta azken urteotan garatutako estekatzaile sintetikoek osatzen dute.

Ondoren, biosentsoreen historian eman diren mugarri garrantzitsuenak azalduko dira, garapen historikoa hobeto ulertzeko asmoz.

1.1.2 Biosentsore-ikerkuntzan emandako mugarri garrantzitsuenak

Azken 30 urteetan emaniko mugarri garrantzitsuenak azaltzen dira ondorengo puntuetan. Hauek hiru gertakizunetan banandu arren, nahikoak dira biosentsoreen gaur egungo egoera nondik eratorria den jakiteko.

1.1.2.1 Glukosa arkatzaren kasua

1984. urtean, *Cass* eta bestek ferrozenoa eta antzerako substratu materialen erabilgarritasuna sentsore anperemetroko gisa frogatzen zuen artikulu bat argitaratu zuten [14]. Urte gutxiren buruan, *Medisense Exatech Glucose Meter* merkaturatu zen eta historian zehar izan den biosentsore salduena bilakatu zen. Hasiera batean, arkatzak elektrodoak inprimaturik eta erabilera bakarreko pantaila txiki bat zituen, 1.2 irudian ikusten den kaxatxoetan saltzen zelarik.

Gailu honek sekulako aurrerapausoa eragin zuen biosentsoreen merkatuan. Lehenik eta behin, bere salmenta-bilgarria arkatza itxurako gailu txiki bat zen odoleko glukosa kontzentrazioa azaltzeko gai zena, eroso eta sinplea. Bestetik, erabilera bakarreko elektrodoa inprimatuta zuen pantailak kalibrazio fasea saihestea ahalbidetzen zuen. Biosentsoreen munduan, hau aurrerapauso itzela izan zen, ordura arteko sentsore guztiak kalibratu egin behar baitziren erabili baino lehen (pH elektrodoak, ISE sentsoreak, …). Honenbestez, gailu komertzial erabilerraz hau diabetesa pairatzen zuten hainbat herritarrengana oso erraz hedatu zen, merkatu andana sortuz. Lehen merkaturatze

honetatik, oinarri beretsuko hainbat produktu ere kaleratu dira, glukosaren detekzioa eta neurketa baitira biosentsoreen artean merkatu handiena duena.

1.2 Irudia. Medisense Exatech Glucose Meter-a.

1.1.2.2 *BIAcore*-ren agerpena merkatuan

1982an *Pharmacia* izena zuen enpresa bateko zenbait ikertzaile *Linkoping*-eko unibertsitateko fisika eta biokimika ikertzailerekin elkarlanean hasi ziren molekulen arteko interakzioa neurtzen zuen bioanalitika instrumentu berri baten garapenerako. Honela, 1984ean *Pharmacia Biosensor* izeneko enpresa berri bat osatu zuten. 1990. urtean *BIAcore* izenarekin gailu berri bat merkaturatu zuten, biosentsore komunitatean zerresan handia eman zuena (1.3 irudia).

Gailu berri honen prezioa garai horretan merkatuan aurkitzen ziren gailu optiko edota elektrokimikoak baino 100 aldiz garestiagoa zen eta gainazaleko plasmoien erresonantzian oinarritzen zen. Gainera, guztiz automatizatua zegoen eta laginaren interakzio biomolekularrak neurtzen zituen.

Gailu honek ikaragarrizko aurrerapausua ekarri zuen. Izan ere, 192 lagin batera kudeatu zitzakeen inolako erabiltzaileren beharrik gabe, modu honetan, errepikagarritasun

handia bermatzen zuelarik. Horretaz gain, tenperaturaren kontrol hertsia eskaintzen zuen (0.1 ^{o}C-tan finkatua) eta biomolekulen zinetika ikerkuntzak egiteko erabiltzen zen. Dena den, gailu honen aurrerakuntza nagusia baruan zekarren sentsore-txip teknologian zetzan, honek biomolekulen immobilizazioa oso modu sinplean bermatzen baitzuen.

Instrumentu hau enpresa farmazeutikoei saldu zitzaien lehenengoz, medikamentu berrien diseinu-denborak modu esanguratsuan laburtu zituztelarik. Ondoren, erabilera zabaldu zen eta zenbait ikerkuntza laborategik afinitate kimikoak aztertzeko erabili zuten.

1.3 Irudia. BIAcore neurgailuaren irudia.

1.1.2.3 Azido nukleikoan oinarrituriko sentsoreak

Azido nukleikoa (AN) nukleotido katez osaturiko makromolekula bat da. Izaki bizidunetan AN ezagunenak azido desoxirribonukleikoa (DNA) eta azido erribonukleikoa (RNA) dira, edozein zelula zein birusetan aurkitu baitaitezke. Tradizionalki, AN-ak informazio genetikoa transferitzen duten makromolekula moduan ezagutu dira. Hala ere, 90ko hamarkadaz geroztik, AN molekula batzuk molekula ezberdinak hautakortasun handiz atxikitzeko gai direla ikusi da. Molekula mota honi aptamero deritzo. Honela, aptameroek molekula organiko txikietatik hasi eta proteina, zelula zein partikula birikoak ere atxiki ditzakete. 1994an aurkikuntza garrantzitsua egin zen, lehenengo aldiz DNA kateek katalizatzaile gisa ere joka zezaketela erakutsi baitzen. Honela jokatzen duten DNA

kateak eta aptameroak DNA funtzional gisa dira ezagunak eta horien funtzioak asko zabal daitezke.

Honenbestez, AN-ak eta estimulu kimikoei erantzuteko gai diren DNA kateak biosentsoreak osatzeko erabili izan dira. Mota honetako biosentsoreak DNA/RNA zatiak edo espezie biologikoak detektatzeko erabiltzea da ohikoena.

1.1.3 Biosentsore motak

Biosentsore munduan izaniko hiru mugarri hauek aztertu ostean, gaur egun aurki daitezkeen biosentsore moten sailkapen bat azaltzen da [15]. Sailkapen hau biosentsorearen transduktorearen edo osagai biologikoaren eta darabilten elementu biokimikoaren araberakoa izango da [16], [17]. Biosentsore diseinuak egiterako orduan, edozein motako elementu hartzaile, analito edo helburu-molekula konkretu bat atxikitzeko gai diren elementuak transduktore ezberdinekin konbina daitezkeela aipatu behar da. Hala ere, egungo merkatuaren % 80 transduktore elektrokimikoek osatzen dute.

1.1.3.1 Transduktore elektrokimikoak

Transduktore elektrokimikoen artean aukera zabala dagoenez, azterketa zehatzago bat egingo da.

- Transduktore potentziometrikoak: erreferentzia- eta seinale-elektrodoen arteko potentzial diferentzia da sentsore mota hauen seinale analitikoa. Hala ere, normalean bi seinale elektrodo darabiltzate eta bi elektrodoak geruza erdiiragazkor baten bidez banatzen dira. Normalean transduktorea elektrodo ioi-hautakor batez osatzen da, pH elektrodoa izanik hedatuen dagoen mota honetako biosentsorea.
- Transduktore voltametrikoa: espezie aktiboaren erredukzio edo oxidazio korrontea da biosentsore hauetan neurtzen dena. Ez dira oso ohikoak biosentsore gisa erabiltzerako orduan eta are gutxiago entzimak neurtu nahi direnean. Hala ere, afinitate handiko interakzioak neurtzeko erabil daitezke.

- Transdukore inpedimetrikoak: sentsore hauek helburu-molekula atxikitzen den zelula elektrokimikoaren inpedantzia aldaketa neurtzen dute korronte alternoaren maiztasunaren arabera.
- Eremu-efektuko transistoreak: normalean geruza biosentikorra eremu-efektuko transistorearen sarrerateko bat den eta ioei sentikorra den mintz baten gainean ipintzen da. Eraldaketa biologiko hauei esker, peptido txikiak eta proteinak detekta daitezke, baita beraien karga ere. Hala ere, mota honetako sentsoreen desabantaila nagusia ingurumenarekiko duen dependentzia da, honek aplikazio eremuak mugatzen baititu.

1.1.3.2 Transduktore optikoak

Normalean transduktore optikoak fluoreszentzia, xurgapena, lumineszentzia, gainazaleko plasmoien erresonantzia edo argiak jasaten duen dispertsioaren espektroskopian oinarritzen dira. Tesi honetan garatuko diren sentsore plataformak uhin ebaneszentearen xurgapenean eta Raman espektroskopian oinarrituko dira. Bi efektu hauek aurrerago modu sakonagoan azalduko dira.

1.1.3.3 Gailu piezoelektrikoak

Potentzial elektrikoak eragindako deformazio bat pairatzen duten kristalak darabiltzaten sentsoreek osatzen dute talde hau. Maiztasun zehatz bateko potentzial alternoak uhin geldikor bat osatzen du kristalean. Elementu hartzaile biologiko batez estalia dagoen kristal batek analito bat atxikitzean, honen erresonantzia maiztasuna aldatu egingo da, atxikimendua egon dela bermatuz. Antigenoak pikometrozko kontzentrazioetan detektatzeko gai direnez, gaur egun ezagutzen diren inmunosentsore sentikorrenak dira.

1.1.3.4 Transduktore termometrikoak

Nahiz eta oso komunak ez izan, transduktore termometrikoak analito baten kontzentrazioa neurtzeko erabiltzen dira. Mota honetako transduktoreek energia termikoa sortzen dute erreakzio kimiko baten ondorioz, eta tenperatura aldaketa hau neurtuz kontzentrazioa neurtu daiteke.

Transduktore motak aztertu ostean, helburu-molekula edo analitoa atxikitzeko duten elementuaren araberako sailkapena egingo da.

1.1.3.5 Sentsore entzimatikoak

Talde honetan aktibitate biologikoa aurkezten duten entzima-prestatu edo prestatu-biologikoak sartzen dira; bai ehun, bai mikrobio kultiboak ere. Erreakzio elektrokimiko bat sortzen duen entzima bat eta substratu material bat batuz osatzen da sentsore entzimatiko motarik sinpleena. Sentsore entzimatikoen adibide komunenak glukosa eta urea sentsoreak dira.

1.1.3.6 Inmunosentsoreak

Kasu honetan, hartzaile biokimiko gisa immunitate-sistemak jariatzen dituen immunoglobulina izeneko babes-proteinak erabiltzen dira. Immunoglobulina edo antigorputzek lotura indartsuak osatzen dituzte antigenoekin, eta hauen arteko interakzioen monitorizaziorako erabiltzen dira gehienbat. Adibidez, giza-odolean antigorputzen agerpena eta, ondorioz, infekzio ezberdinak detektatzeko erabiltzen dira gehienbat.

1.1.3.7 DNA sentsoreak

DNA sentsoreen osagai biokimikoak NA ezberdinak dira. Normalean, hauek ez dira organo bizidunetatik lortzen, DNA anplifikazio bidez sintetizatzen dira polimerasa kate-erreakzio bitartez. Gainera, osagai hauek modifikatu egin daitezke sentikortasuna handitzeko edo beste efekturen bat lortzeko asmoz. Helburu-molekula bakoitza erakartzeko zein egitura osatu behar den aurresatea ezinezkoa denez gaur egun, hainbat saiakera egin behar dira, horien artean egokiena aukeratuz eta aptamero egokia osatuz.

DNA sentsoreen beste helburu bat DNA kateekin zenbait proteina edo konposatu ez-makromolekularrek duten interakzioa ikustea da. Honela, afiliazioak ikusi, desordena genetikoak detektatu edo modifikazio genetikoa jasan duten produktuen detekzioa egin daiteke.

1.1.3.8 Biosentsore mikrobialak

Mota honetako sentsore gehienetan monitorizazio gailua eta osagai biologikoa bananduta aurkitzen dira. Hori dela eta, biosentsore mikrobial bat helburu-molekula neurtu nahi den disoluzioan aurkitzen den ehun bertikal batez osatua egon daiteke, eta transduktorea disoluzioan murgilduta aurki daiteke gertatzen ari den erreakzioa neurtzen.

Mikroorganismoak helburu anitzekin erabili daitezke, disoluzioan aurkitzen diren organiko oxidatzaileak zenbatzeko, besteak beste. Sentsore mota hauek hautakortasun baxua eskaintzen dute organismo unizelularrek substantzia organiko anitz deskonposa baititzakete antzerako erreakzioa emanik.

1.1.3.9 Zelulen egitura supramolekularrean oinarrituriko biosentsoreak

Sentsore entzimatiko eta DNA sentsoreen artean kokatuko genuke talde hau. Izan ere, biosentsore hauek egitura konplexua duten entitate intramolekularrak atxikitzeko gai dira. Elementu atxikitzailearen konplexutasuna eta hau aurkitzen den ingurune naturaletik ateratzean duen ezegonkortasuna dela eta, oraindik ez dutela merkatu zabalik esan daiteke. Prozesu biokimikoak aztertzeko erabiltzen dira ikerkuntzan, zenbait kutxatzaileren poluzioaren prozesua ikuskatzeko, adibidez.

1.2 PZOak

Zuntz optikoak material dielektrikoz eginiko eta espektro elektromagnetikoaren uhin ikusgai edo infragorriak eroateko gai diren hariak dira. Horretaz gain, ondorengo ezaugarriak izaten dituzte: silizezkoak edo plastikozkoak izan daitezke, eta ohiko kobrezko kableak baino datu-kantitate handiagoa eta abiadura handiagoan transmititzeko gai izaten dira. Gure kasuan, polimerozkoak jorratuko ditugu soilik, tesi-lan hau aurkitzen den testuingurua dela eta.

Aurrez esan den gisa, lehen PZOak argiztatzeko helburuz garatu ziren 60. hamarkadaren inguruan. Honela PZOen aurrekaria poli(metil metakrilato)-zko (PMMA) MI-PZO-ak izan ziren. Polimeroa beirarekin alderatuz, material merkeagoa eta erabilerrazagoa zen eta horrek komunikazio-sareak osatzeko material interesgarria egiten

zuen. Hala ere, beirarekin alderatuz atenuazio askoz ere handiagoa zuen, garaian 500 dB/km-koa 650 nm-ko uhin-luzera erabiliz.

Murrizketa hori, dena den, *Keio* Unibertsitateko *Koike* irakasleak gainditu zuen lehen IG-PZO-ak fabrikatzean [1]–[3]. Horretarako, polimero amorfo PFetaz baliatu zen atenuazioa minimizatzeko [18]. Momentu horretatik aurrera, PZOak oso erakargarriak bilakatu ziren transmisio sistema moduan erabiltzeko[19].

PZOak, komunikazioetan erabiltzeaz gain, beste asmo batzuetarako ere garatu ziren. Hori dela eta, gaur egun hainbat eremu ezberdinetan ikus ditzakegu PZOak, sentsore, laser-, anplifikagailu, eta kommutadore- optiko gisa, adibidez. PZOen garapen eta ikerkuntza, historian zehar izandako mugarri garrantzitsuenekin batera, ondorengo atalean azalduko da.

1.2.1 PZOen bilakaera historikoa

Alexander Graham Bell-i, telefonoaren asmatzaile izendatzeaz gain, fotofonoaren garapena ere esleitu behar zaio. Izan ere, XIX. mendean eraiki zuen gailu honen bitartez eguzki izpiak modulatuz informazioa transmititzeko gai izan zen. Hala ere, fotofonoak ez zuen arrakasta handirik izan, ondo diseinaturiko tresna izanik, telefonoak iada nahikoa aurrerakuntza ekarri baitzuen. Edonola ere, *Bell*-ek fotonikari buruzko hainbat printzipio ezarri zituen, gaur egun oraindik erabilgarriak direnak.

Lehen mugarri hartan gizarteak behar zuen informazioaren transmisio-abiadura hartatik gaur egungora hainbat magnitudetan hazi da eskaria. Gaur egun negozio guneetan edo aisialdiko kontsumitzaileen biztanleriaren artean transmisio-abiadura andanak eskatzen zaizkio sareari. Ia-ia esan liteke bizi dugun informazioaren garai honetan berebiziko garrantzia duela interneteko abiadurak. Eredu honetan PZOetan oinarrituriko komunikazio sistemak dira etorkizunik oparoena eskaintzen dutenak. Batez ere azken 100 metroetarako erabiltzeko dira aproposak, zuntz optikoen abantailak (banda-zabalera altua, atenuazio baxua eta immunitate elektromagnetikoa) eta, beste alde batetik, manipulazio erraztasunak batzen baitira [20], [21].

PZOen komertzializazioa 1975. urtean hasi zen *Mitsubishi Rayon* konpainiaren eskutik. Nahiz eta 1966an *Dupont* konpainiak lehen MI-PZO-ak sortu, patente guztiak *Mitsubishi Rayon*-i saldu zizkioten, eta hauek, *Eska* izenarekin komertzializatu zuten.

Lehen PZO hau PMMA-z egindako nukleo batez eta partzialki PF-riko estaldurarekin osatua zegoen eta 1000 dB/km-ko galerak zituen; oraindik oso altuak. Hurrengo urteetan beste bi konpainia gehitu ziren PZOen merkatura *Asahi Chemical* eta *Toray* izenekoak. Hiru enpresa hauek PZOen merkatua kontrolatu zuten hasiera horretan, baina atenuzaio optiko handiak zirela eta, ez ziren datu-transmisioetarako sareetan zabaldu.

80ko hamarkadan ikerkuntza nabariak egin ziren PZOen inguruan. Besteak beste, 1983an *Kaino* eta besteek deuteraturiko PMMA erabiliz, atenuazio baxuko MI-PZO-ak lor zitezkeela frogatu zuten [22] . Bitartean, *Groh* eta besteek PMMAn oinarrituriko PZOen atenuazioaren limite teorikoa kalkulatu zuten [23]. Argitalpen honek aipaturiko hiru konpainien arteko lehia sortu zuen eta hamarkada horren amaierarako muga honen inguruko atenuazio-optikoak zituzten PZOak komertzializatu ziren. Horren adibide da *Mitsubishi Rayon* enpresak kaleraturiko eta 150 dB/km-ko atenuazioa zuen MI-PZO-a. Zuntz honekin 50 Mb/s-ko banda-zabalera lor zitekeen 650 nm-ko argi-iturriarekin. PZOetan izan den atenuazio optikoaren garapena ikus daiteke 1.4 irudian, bai MI-PZO-entzat, bai IG-PZO-entzat.



1.4 Irudia. PZOetan izan den atenuazio optikoaren garapena.

IG-PZO-etan zentratuz gero, lehen IG-PZO-ak 1982. urtean sortu ziren. Hain zuzen ere, *Keio* Unibertsitateko *Koike* irakasleak garatu zituen eta lehen IG-PZO-ak 1070 dB/km-ko galerak aurkezten zituen 670 nm-etarako [1]–[3]. Aurrekari honetatik abiatuz, fabrikazio prozesuak doituz eta hidrogeno atomoak fluor atomoekin ordezkatuz,

atenuazio-optikoak modu nabarmenean txikiagotu zituzten 150 dB/km-taraino iritsiz. Hurrengo mugarri garrantzitsua 1996. urtean *Keio* Unibertsitatea eta *Asahi Glass* konpainiaren elkarlanetik sortu zen. Izan ere, lehendabiziko PFzko IG-PZO garatu ziren, ordura arteko PMMAzko PZOen atenuazioa herenera txikiagotuz, hots, 50 dB/km-ko atenuazioa lortuz 650-1300 nm-tako tartean. Material hau CYTOP® izenarekin ezagutzen da. Aurkikuntza honen ondotik *Asahi Glass* enpresak *Lucina* izeneko dibisioa sortu zuen, datu-transmisio gaitasun handiko PZO hauek merkaturatzeko asmoz [24]. 1.1 taulan ageri da PZOek izandako datu-transmisio kapazitatearen bilakaera.

1.1 Taula. PZOen transmisio ahalmenaren eboluzio historikoa.

Bit-Abiadura (Gb/s)	Distantzia (m)	λ (nm)	Afiliazioa
0.531	100	650	Essex Unib.
1	30	670	IBM & Keio Unib.
2.5	100	650	Keio Unib. & NEC
2.5	200	1300	Keio Unib, Asahi G. & Fujitsu
2.5	200	650	Keio Unib., Mitsubishi R., NEC & Eindhoven Unib.
5	140	1300	Keio Unib., Asahi G. & Eindhoven Unib.
2.5	450	1300	Keio Unib., Mitsubishi R., NEC & Eindhoven Unib.
11	100	850	Asahi G., Bell Labs & Lucent Tech.
1	1000	850	Asahi G. & Eindhoven Unib.
4	300	1550	Keio Uninb., JST-ERATO & Asahi G.
40	100	1325	Georgis Inst. Tech.

Azken hamarkadetan hobekuntza nabaria gertatu da PZOen datu-transmisio abiadura, banda-zabalera edota bit-emariari erreparatuz. Horren adibide da 1992an *Koike* eta besteek 10 m-ko distantzian lorturiko 5 GHz-etako banda-zabalera IG-PZO-ak erabiliz [25]. Ondoren, 1994. urtean hain zuzen ere, 100 m-ko distantzian 2.5 Gb/s-ko transmisio-abiadura frogatu zen IG-PZO-ak erabiliz [26]. Hala ere, aurrerapauso handiena 1999. urtean eman zen 11 GB/s-ko abiadura-tasara heldu baitzen PFzko IG-PZO a erabiliz, modu-anitzeko beirazko zuntzaren abiadura-marka hautsiz [27]. Pausoz pauso emaniko aurrerapen txikiei esker, 2000. urtean 1 km-eko distantzian zehar 1 Gb/s-ko transmisio-abiadura lortu zen [28]. Azken mugarri garrantzitsua 2010. urtean gauzatu zen PFzko IG-PZO eta modulazio-teknika aurreratuak erabiliz 100 m-ko distantzian 47.4 Gb/s-

ko marka haustea lortu baitzen [29]. PZO teknologia sare lokaletan edo sarrera sareetan ezartzeko teknologia egokia dela ondoriozta daiteke eboluzio historikoaren azalpen honetan. Azken 40 urteetan izan diren mugarri garrantzitsuenak laburbildu dira 1.2 taulan.

Atal honetan ikusten den moduan, aipaturiko mugarri eta lorpen guztiak PZOak komunikazioetarako darabiltzate, aipatu behar baita ikerkuntza-korronte horrek eraman duela historikoki PZOen garapenaren zama. Izan ere, PZOak sentsore gisa erabiltzea azken urteetan jorratu den ikerketa-lerroa izan da. Horregatik oraindik lan gutxik aurkezten dituzte sentsore gisara lan egiteko diseinatu direnPZOak, eta normalean hasiera batean komunikazioetarako diseinaturikoak moldatu dira. Tesi-lan honetan aitzitik, aurrerago zehaztuko den moduan, zenbait PZO mikroegituraturen (PZOm) geometria zuntz bidez areagoturiko Raman espektroskopia (ZBARE) efektua sortzeko diseinatua izan da.

1.2 Taula. Azken 40 urteetan PZOekin erlazionaturiko mugarri garrantzitsuenen eboluzio historikoa datu-transmisoetarako.

Urtea	Erakundea	Mugarria
1968	Dupont	Lehendabiziko MI-PZO PMMA-zko nukleoarekin.
1972	Toray	Lehenengo MI-PZO poliestirenozko nukleoarekin.
1981	NTT	Atenuazio baxuko PMMA MI-PZO (55 dB/km @ 568 nm)
1982	Keio Unib.	Lehendabiziko IG-PZO (1070 dB/ km @ 670 nm)
	NTT	Lehen MI-PZO deuteraturiko PMMA-zko nukleoarekin (20 dB/km @ 650 nm)
1983	Mitsubishi Rayon	PMMA “Eska” MI-PZO (110 dB/km @ 570 nm)
1990	Keio Unib.	Abiadura altuko lehen transmisioa PMMA-zko IG-PZO-aren bitartez (3 GHz/km)
1992	Keio Unib.	Deuteraturiko PMMA-zko IG-PZO (55 dB/km @ 688 nm)
1993	Essex Unib.	531 Mb/s transmisioa 100 m-tan PMMA-zko MI-PZO-aren bitartez
	Keio Unib.	Lehen PZOzko anplifikagailua Errodamina B-rekin dopaturiko IG-PZO-aren bitartez (27dB @ 591nm)
1994	Keio Unib. & IBM	1 Gb/s transmisioa 30 m-tan IG-PZOren bitartez 670 nm-tan
	Keio Unib. & NEC	2.5 Gb/s transmisioa 100 m-tan IG-PZOren bitartez 650 nm-tan
	Asahi Chemical	Lehen nukleo anitzeko MI-PZO
1995	Mitsubishi Rayon & NEC	156 Mb/s transmisioa 100 m-tan MI PZOren bitartez eta gorri koloreko LED bizkorrarekin.
1996	Keio Unib. & KAST	Lehen IG-PZO PF (50 dB/km a 1300 nm)

		Galeren estimazio teorikoa PZO PF (0.3 dB/km a 1300 nm)
		Transmisio abiaduraren estimazio teorikoa IG-PZOetan (PMMA: 4 Gb/s 100 m-tan; PF: 10 Gb/s 1 km-tan)
1997	POF Consortium of Japan	ATM LAN-aren estandarizazioa (156 Mb/s 50 m-tan MI-PZO) ATM Forum-ean
	Keio Univ., Fujitsu & Asahi Glass	IEEE1394 normaren estandarizazioa (156 Mb/s 50 m-tan MI PZO)
		2.5 Gb/s transmisioa 200 m-tan IG-PZO PF-ren bitartez 1300 nm-tan

Urtea	Erakundea	Mugarria
1998	COBRA, Eindhoven Univ., Keio Univ., Asahi Glass & NEC	2.5 Gb/s transmisioa 300 m-tan IG-PZO PF-ren bitartez 645 nm-tan
	Matsushita	500 Mb/s transmisioa 50 m-tan IG-PZO-ren bitartez eta eta gorri koloreko LED bizkorrarekin.
1999	COBRA, Eindhoven Univ., Keio Univ. & Asahi Glass	2.5 Gb/s transmisioa 550 m-tan IG-PZO PF-ren bitartez 840 eta 1310 nm-tan
	Bell Labs & Asahi Glass	11 Gb/s transmisioa 100 m-tan IG-PZO PF-ren bitartez 830 eta 1310 nm-tan
2000	Asahi Glass	IG-PZO (Lucina) 16 dB/km-ko atenuazioarekin 1300 nm eta 569 MHz·km
2002		IEEE1394 estandarra berretsi eta ibilgailuentzako IDB-1394 osatu
2004	Asahi Glass	Lehen PMMA-zko IG-PZO komertzialki eskuragarri
2005	Chromis Fiberoptic	Lehen IG-PZO PF komertzialki eskuragarri
2010	COBRA & Eindhoven Unib.	47.4 Gb/s transmisioa 100 m-tan IG-PZO PF-ren bitartez 1300 nm-tan

1.2.2 PZO-en egitura

PZO estandarrak edo tradizionalak hiru geruzez osatzen dira, 1.5 irudian erakusten den gisa. Aurrerago ikusiko den moduan, eredu hau ez da beti errespetatzen, baina, hala ere, eredu honek PZOen transmisio ezaugarriak ulertzen laguntzen du. Gainera, PZOak fabrikatzeko erabiltzen diren polimeroak, gehienetan PMMAn oinarriturikoak, material amorfo eta dielektrikoak dira, zilindro itxurako zuntz optiko malguak osatuz. Aipatu diren hiru geruza hauek *nukleoa*, *estaldura* eta *estalkia* izan ohi dira. Argiaren transmisioa berma dadin, nukleoaren EIak estaldurarena baino handiagoa izan behar du, horrela barneko islapen osoa (BIO) gertatuko da. Horretarako materialen osaketa kimikoan aldaketa txikiak egiten dira. Bestalde, estalkiak babes mekanikoa eta isolamendua eskaintzen dio PZOari.

PZO komertzialek 125 eta 980 μm arteko nukleo erradioak (ρ) izaten dituzte, modu honetan zuntz erabilerrazak izanaz. Gainera, nukleoa osatzen duen materialarenEIa uniformea izaten da MI-PZO-etan eta graduala GI-PZO-etan. Estaldurarena aitzitik, uniformea. Erreferentzia gisa, lehenengoetan nukleoaren RI-a 1.492 izaten da eta estaldurarena 1.417. IG-PZO-etan, ordea, nukleoko EIa modu gradualean txikiagotzen da simetria ardatzaren distantziarekiko (r). 1.6. irudian ikus daitezke EI profilak eta zeharkako sekzioak.

1.5 Irudia. PZO baten egitura.



1.6 Irudia. MI-PZO et aIG-PZO-en EI profilak eta zeharkako sekzioak.

1.2.3 Zuntz optikoen sailkapena

PZOak sailkatzeko hainbat irizpide har daitezke kontuan. Lehen kapitulu honetan EI profila izango da irizpidea, modu honetan 3 azpitalde sortuz. Horietaz gain, beste bi gehitu dira duten geometria edo osaketa dela eta. Hala ere, sailkapena transmitituriko modu kopuruaren arabera edo gidapen mekanismoaren arabera egiten bada azpitalde hauek aldatu egingo lirateke. Beraz, EIari erreparatuz, MI-PZO-ak, IG-PZO-ak eta maila anitzeko indizedun PZOak (MAI-PZO) bereizi dira, eta geometria edo osaketa berezia dutela kontsideratuz nukleo anitzeko PZOak (NA-PZO) eta PZO mikroegituratuak (PZOm) gehitu dira.

1.2.3.1 MI-PZO-ak

Mota honetako PZOetan EIaren bi maila bereizten dira, bat uniformea dena, nukleoaren azalera hedatua eta bestea estaldurarena. Honela definitzen da:

$$n(r) = \begin{cases} n_{nu} & r \leq \rho \\ n_{es} & r > \rho \end{cases}, \qquad 1.1)$$

$n_{nu} > n_{es}$ delarik.

Mota honetakoPZOetan modu anitz transmititzen dira aldi berean, eta horrek MI-PZO-en muga handiena sortzen du; izan ere, dispertsio modal altuek transmisio abiadurak mugatzen dituzte. Hala ere, egungo zenbait goi-mailako modulazio erabiliz arazo hau ekidin daitekeela frogatu da [30], [31]. Telekomunikazioetarako erabiltzeaz gain, mota honetakoPZOak beste mota bateko aplikazioetan ere erabili izan ohi dira, produkzio linea industrialetan edo automobil aplikazioetan, besteak beste. MI-PZO estandarren diametroa 980 μm-koa izaten da eta estalduraren lodiera berriz 10 μm-takoa. Argia modu errazean akoplatu daiteke, horren erakusgarri 0.5-eko zenbakizko irekidura izanik.

1.2.3.2 IG-PZO-ak

Aurreko zuntzekin konparatuz, IG-PZO-ek banda-zabalera zabalagoa izaten duteEIaren profilarengatik. Gainera, dispertsio modala minimora murrizten dute [32]–[35]. 1.2. ekuazioan deskribatzen den moduan profil berezi hau gradualki txikiagotzen da simetria ardatzarekiko (r). Horretaz gain, maila-indizedunen gisa diametro handikoak izaten dira.

$$n(r) = \begin{cases} n(0)\sqrt{1 - 2\Delta(r/\rho)^g} & r \leq \rho \\ n(0)\sqrt{1 - 2\Delta} & r > \rho \end{cases} \quad 1.2)$$

Δ ikurrakEIen arteko ezberdintasuna deskribatzen du eta honela definitzen da:

$$\Delta = \frac{n_{nu}^2 - n_{es}^2}{2n_{nu}^2}. \quad 1.3)$$

g parametroak, bestalde, profilaren esponentea adierazten du. g = 2 denean profil parabolikoa izango du PZOak eta g handiagotzen doan heinean MI-PZO-en antza handiagoa izango du, infinituko kasuan berdina izanik. 1.7. irudian ikusi diren bi PZO motetan zehar argia nola hedatzen den azaltzen da, modu-anitzeko zuntzetan beti ere.



(a) (b)

1.7 Irudia. Argiaren hedapenaPZOetan zehar. (a) MI-PZO-en kasua. (b) IG-PZO-ren kasua.

IG-PZO-en kasuan, gehien erabili izan diren materialak PMMA eta polimero PF-ak izan dira. Hauen ezaugarri nagusienak 1.3 taulan laburbildu dira:

1.3 Taula. PMMA eta Polimero PF-z eginikoPZOen ezaugarri nagusien laburpena.

Ezaugarriak	PMMA IG-PZO	PF IG-PZO
Atenuazioa	150 dB/km @ 650 nm > 1000 dB/km @ 850 nm eta 1310 nm	< 40 dB/km @ 850-1320 nm 10 dB/km @ 1210 nm
Banda-zabalera · distantzia	2 GHz · km @ 650 nm	2 Ghz · km
Lorturiko transmisio distantzia	200 m @ 2.5 GHz	110m @ GHz

1.2.3.3 MAI-PZO-ak

PZO mota hau aurreko bien arteko nahasketa moduan ikus daiteke. Izan ere, ikertzaileek IG-PZO-en EI profila garatzeko zituzten arazo teknikoak zirela eta, soluzio

honekin topo egin zuten [36]–[38]. Kasu honetan, nukleoa EI ezberdineko hainbat geruzez osatua dago, eta denak batzean EI profil paraboliko baten tankerako profila lortzen da. Bere ezaugarrien artean fabrikazio prozesu sinplea eta hezetasuna eta tenperaturaren aldaketekikoEIak duen egonkortasuna aipatu behar dira.

MAI-PZO-ek MI-PZO-en fabrikazio sinplea eta IG-PZO-en banda-zabalera konbinatzen dituzte. Adibide gisa, 0.25 zenbakizko irekidura duen 3 geruzako MMI-PZO-aren banda-zabalera 250 MHz · 100 m-koa da, IEEE 1394/S400 estandarraren eskakizunak betetzen dituelarik [36].

1.2.3.4 NA-PZO-ak

Nukleoaren diametro zabalak dituzten PZOek galera handiagoak izaten dituzte kurbadurengatik. Bestalde, tamaina txikiko PZOak konplexuagoak izaten dira manipulatzeko edo argiaren akoplamendua egiterako orduan. Bi ezaugarri hauek kontuan izanda, NA-PZO-ak asmatu zien [39]. Berauek tamaina txikiko hainbat PZO taldekatzen dituzte gurutze-sekzio handia sortzeko asmoz; normalean 1 mm inguru izaten delarik. Zuntz mota hauek hamaika diseinu ezberdin onartzen dituzte, aplikazioaren arabera alda daitekeelarik. 1.8. irudian ikus daitezke hainbat adibide.



1.8 Irudia. Hainbat NA-PZO diseinuren argazkiak.

1.2.3.5 PZOm-ak

PZOm-en eredua erlatiboki berria dela esan daiteke eta *P. Russell* ikerlariak beirazko zuntz mikroegituratuak kristal fotoniko izenarekin eman zituen ezagutzera [40]. PZOm-etan hainbat gidapen mekanismo eman ahal dira argi-transmisiorako *band-gap* efektua eta aldaturiko barne islapen osoa (ABIO) izanik nagusienak. Bi gidapen mota hauek aurrerago aztertuko dira sakonago, baina esan behar da *band-gap* efektu bidez

argi-transmisioa lortzen bada, argia hutsean transmititu ahal izango dela, dispertsio materiala ekidinez [41], [42]. 1.9 irudian hainbat PZOm-ren diseinu ikus daitezke.

Irudi honetan azaltzen diren PZOm ezberdinak Australian aurkitzen den Sydney-ko unibertsitateko ikerlariek fabrikaturiko PZOm-ak dira. Izan ere, bertan aurkitzen den *Optical Fibre Technology Centre*-ko ikerlariak izan baitira PZOm-en fabrikazioak garatu eta aurrerakuntza garrantzitsuenak egin dituztenak. Beraiek fabrikatu baizituzten lehenengo aldiz modu bakarreko PZOm-a, NA-PZOm-ak eta birrefrigentzia altuko PZOm-ak [43].



1.9 Irudia. PZOm ezberdinen irudiak (Maryanne Large eta Australian aurkitzen den Sydney-ko unibertsitatearen adeitasunez).

Azken urteetan izan den aurrerakuntzei esker, bai simulazio eta modelizazio aldetik, bai fabrikazio prozesuen aldetik, zuntz mota hauek garrantzi handia hartu dute fotonikaren munduan. Berauekin efektu ezberdinak lor daitezke eta eremu ezberdinetan erabili. Aurrerago ikusiko den moduan, gure kasuan glukosa zenbatzeko Raman espektroskopia neurketa plataforma gisa inplementatu dira gure instalazioetan fabrikaturiko hainbat PZOm.

1.3 Jorratutako neurketa teknikak

Ondoren, tesian zehar jorratutako neurketa teknikak azalduko dira. Lehenik eta behin, uhin ebaneszentearen ezaugarriak eta sentsore moduan uhin honetaz baliatzeak duen interesa azaltzen da. Ondoren, Raman espektroskopia zer den eta laborategian zein motako ekipamendua dagoen deskribatuko da.

1.3.1 Uhin ebaneszentearen xurgapena

Uhin ebaneszentearen xurgapenaren neurketak egin ahal izateko, uhin ebaneszentea zer den eta zein ezaugarri dituen azalduko dira. Ezaugarri hauek ulertu ostean sentsore gisa nola jorratu daitekeen sakonduko da bigarren kapituluan, bertan azaltzen den detekzio sistemaren oinarria baita.

PZO tradizionaletan argia BIO bitartez gidatzen da. Honek esan nahi du angelu kritikoa baino eraso-angelu (θ_e) handiagoarekin erasotzen duten argi-izpiek nukleo-estaldura interfazea, nukleora islatuko direla θ_i angeluarekin eta gidatu egingo direla; beti ere, EI perfila egokia dela suposatuz (1.10 irudia). Hala ere, angelu kritikoa baino eraso-angelu handiagoak gertatzen direnean, ez du esan nahi 2 ingurunera (PZO tradizionalaren kasuan estaldurara) ez dela argi transmisiorik gertatuko, bai ordea θ_t angeluak zentzu fisikoa galduko duela $\theta_t > \pi/2$ izango baita.



1.10 Irudia. Argi izpi erasotzailea, islatua eta transmititua bi inguruneen arteko erasoan.

Hala ere, posible da ikuspuntu matematiko batetik bi inguruneen arteko interfazean gertatzen dena aztertzea. Horretarako, lehenik eta behin, uhin transmitituaren adierazpena definituko dugu:

$$E_t = E_t^0 \exp[-j\beta_2(\sin\theta_t x + \cos\theta_t z)]. \tag{1.4}$$

Snell-en legea aplikatuz interfazean:

$$\sin\theta_t = \frac{n_{nu}}{n_2}\sin\theta_e,$$

$$\cos\theta_t = \pm(1-\sin^2\theta_t)^{1/2} = \pm\left[1-(\frac{n_{nu}}{n_2}\sin\theta_e)^2\right]^{1/2}, \tag{1.5}$$

eta $\sin\theta_e > n_2/n_{nu}$ kasua konsideratzen ari garenez,

$$\cos\theta_t = j\left[(\frac{n_{nu}}{n_2}\sin\theta_e)^2 - 1\right]^{1/2}. \tag{1.6}$$

Ordezkatuz:

$$E_t = E_t^0 \exp\left(-j\beta_2\frac{n_{nu}}{n_2}\sin\theta_e\, x\right)\exp\left\{\mp\left[\left(\frac{n_{nu}}{n_2}\sin\theta_e\right)^2 - 1\right]^{1/2} z\right\}. \tag{1.7}$$

Azken adierazpen honetan esponentzial positiboa arbuiatuko dugu, fisikoki ez delako posible. Honela nukleoa inguratzen duen ingurune arinagoan sartu ahala (*z* noranzkoan), anplitudea esponentzialki txikitzen zaion uhin baten adierazpena daukagu. Uhin ebaneszente hori *x* norabidean zehar hedatzen da bi inguruneak banatzen dituen

gainazalean eta, arrazoi horregatik, gainazal-uhin ere deitzen zaio. Uhin ebaneszente honen anplitudea ez da konstantea uhin-frontean zehar, eta, beraz, ezin daiteke homogeneotzat jo. Bere anplitudea oso azkar ahultzen da *z* norabidean zehar, honi aurrerago irismen sakonera, edo *penetration depth* deritzo. Beraz, uhin ebaneszentea komunikazioetarako egoki ez izan arren, sentsoreak diseinatzerako orduan garrantzi handia izango du ingurumenarekin hartu-eman handia duelako.

1.3.2 Raman espektroskopia

Raman espektroskopiak laginaren bibrazio molekularrak deskribatzen ditu argi erasotzailearen dispertsio inelastikoaren bitartez [44]. Hori dela eta, laginaren bibrazio molekularrak aztertuz, laginaren hatz-marka lortzen da eta bertan agertzen diren bibrazioak egitura molekular zehatz batzuri eslei dakizkieke inolako zalantzarik gabe. Laginaren informazioa lortzeko eskaintzen duen bereizmen altu honek Raman espektroskopia oso teknika erabilia bilakatu du gaur egun hainbat helburutarako. *C.V. Raman* eta *K. S. Krishnan* ikerlariek frogatu zuten dispertsio inelastikoa lehenengo aldiz 1928. urtean [45]. Aurkikuntza honek 1929-ko fisika Nobel saria irabazteko balio izan zien gainera. Teknika hau argia eta materiaren arteko interakzioan oinarritzen da eta nahiz eta aurrerago ideia honetan sakondu, oso efizientzia baxua du, hau izanik teknikaren desabantaila handiena.

Argiak materiarekin interakzionatzean lau gertaera ezberdin gertatuko dira: transmisioa, islapena, xurgapena eta dispertsioa. Gure kasuan dispertsioa izango dugu aztergai, Raman espektroskopia prozesu horretan oinarritzen baita. Argia eta materiaren arteko elkarrekintzan argia bi modutan dispertsa daiteke, modu elastikoan zein inelastikoan. Lehenengoan (*Rayleigh* dispertsio moduan ezagutzen da), argia uhin-luzera baino txikiagoak diren partikulengatik dispertsatzen da. Elkarrekintza honetan argiak ez du uhin-luzeran aldaketarik jasango dispertsaturiko argiaren energia hasierakoaren berdina baita.

Bestalde, modu inelastikoan dispertsaturiko argiak uhin-luzeran aldaketa izango du, materiaren bibrazioekin interakzionatzean argi erasotzaileak bibrazio horien naturaren arabera energia irabazi ala galdu egin duelako. Hori gertatzen denean energia trukea gertatzen dela esaten da eta efektu hau Raman dispertsio gisa ezagutzen da, hain zuzen ere.

Hala ere, hurrengo ataletan dispertsio honen inguruan sakonduko dugu bi ikuspuntu ezberdin azalduz.

1.3.2.1 Raman espektroskopiaren ikuspuntu klasikoa

Maila makroskopikoan Raman dispertsioa honela ikus daiteke: eremu elektromagnetiko baten eraginez, dipolo oszilatzaile batek igorritako energia litzateke. Fisika klasikoa erabiliz, fenomeno hau ondoren azalduko den moduan ikus daiteke [46], [47]: *z* ardatzean zehar hedatzen den argi monokromatiko batek *x* ardatzean oszilatzen duen eremu elektriko bat du. Eremu elektrikoaren balioa (E_x), edozein denboran (t) honela espresatu daiteke:

$$E_x = E_x^0 \cos(2\pi\nu_0 t), \tag{1.8}$$

non E_x^0eremu elektrikoaren anplitude maximoa den eta ν_0 argi monokromatikoaren maiztasuna. Argi honek materiarekin elkarreragina duenean, honen eremu elektrikoak materia inguratzen duen elektroi lainoa polarizatuko du eta elektroi hauek oreka posiziotik atera. Elektroien desplazamendu honek eremu elektrikoarekin batera oszilatuko du eta dipolo elektriko oszilatzaile baten gisa jokatuko du. Egoera honetan, berriki sortu den dipoloak argia igorriko du (argi dispertsatua) oszilatzen ari den korronte elektrikoaren ondorioz. Beraz, argi dispertsatua dipolo elektrikoaren oszilazioaren menpekoa bada, dipoloaren polarizazioaren aldaketek dipoloaren argi-emisioaren maiztasunean eragina izango dute. Dipoloaren polaritatea bere dipoloaren momentuak determinatzen du (μ):

$$\mu = \alpha E_x = \alpha E_x^0 \cos(2\pi\nu_0 t), \tag{1.9}$$

non α polaritate tentsorea den eta kanpoko eremu elektriko baten aurrean elektroi lainoaren distortsioaren joera deskribatzen duen. Molekula bat bere maiztasun naturalean oszilatzen ari bada (ν_m), molekularen nukleoaren desplazamendua (q) honela deskriba daiteke:

$$q = q_0 \cos(2\pi\nu_m t), \tag{1.10}$$

non q_0 bibrazioaren anplitudea den. Bibrazio anplitude txikientzako α-ren balioa q-ren funtzio linear gisa espresa daiteke Taylor-en seriea erabiliz:

$$\alpha = \alpha_0 + \left(\frac{\partial \alpha}{\partial q}\right)_0 q + \cdots . \qquad 1.11)$$

1.9 eta 1.11-ko lehen bi osagaiak konbinatuz gero, dipolo momentua honela azaldu daiteke:

$$\begin{aligned} \mu &= \alpha E_x^0 \cos(2\pi \nu_0 t) \\ &= \alpha_0 E_x^0 \cos(2\pi \nu_0 t) + \left(\frac{\partial \alpha}{\partial q}\right)_0 q E_x^0 \cos(2\pi \nu_0 t) \\ &= \alpha_0 E_x^0 \cos(2\pi \nu_0 t) + \left(\frac{\partial \alpha}{\partial q}\right)_0 q_0 \cos(2\pi \nu_m t)\, E_x^0 \cos(2\pi \nu_0 t) \\ &= \alpha_0 E_x^0 \cos(2\pi \nu_0 t) + \tfrac{1}{2}\left(\frac{\partial \alpha}{\partial q}\right)_0 q_0 E_x^0 \{\cos[2\pi(\nu_0 + \nu_m)t] + \\ &\qquad \cos 2\pi\nu 0 - \nu m t. \end{aligned} \qquad 1.12)$$

Azken adierazpen honetatik elkarrekintzan parte hartzen duen eremu elektromagnetikoaren maiztasun beran igortzen duen dipoloa adierazten du lehen osagaiak. $\nu_0$maiztasunean erradiatzen duenez, *Rayleigh* dispertsioari dagokio. Bestetik, bigarren eta hirugarren osagaiek $\nu_0 + \nu_m$ eta $\nu_0 - \nu_m$ maiztasunetan igortzen dute. Maiztasun hauek argi erasotzailearekiko ezberdinak direnez, dispertsio inelastikoa edo Raman dispertsioa gertatu dela esan daiteke. Igorpen hauen inguruan aipatu behar da maiztasun altuagoan igortzen den argiak ($\nu_0 + \nu_m$ osagaiak) *anti-Stokes* dispertsioa jasan dutela esaten dela eta maiztasun baxuagokoak berriz *Stokes* dispertsioa.

Garrantzitsua da aipatzea Raman dispertsioaren bi osagaiek ez dutela zertan aktiboak izan. $\left(\frac{\partial \alpha}{\partial q}\right)_0$ osagaia zero izaten bada zenbait bibraziorentzat, bibrazio hauek Raman ez-aktiboak direla esaten da. Beraz Raman aktiboak diren bibrazioek polaritate aldaketa jasan behar dute. Bestalde, $\left(\frac{\partial \alpha}{\partial q}\right)_0$ osagaiak Raman maiztasun horren anplitudea ezarriko du eta 1.12 ekuaziotik begi bistako ez izan arren, *Rayleigh* dispertsioa baino magnitude-ordena batzuk ahulagoa izan ohi da.

1.3.2.2 Raman espektroskopiaren mekanika kuantiko ikuspuntua

Ikuspuntu klasikoan maila makroskopikoa aztertu da, baina kasu honetan maila mikroskopikoan aztertuko da efektua. Ikuspuntu honetan Raman dispertsioa energia transferentzia ereduarekin aztertu daiteke [46]–[48]. Eredu honetan argiaren materia izaera jorratzen da fotoiak aztertuz. Fotoiaren energia (*E*) argiaren maiztasunarekiko proportzionala da:

$$E = h\nu,$$

1.13)

